



ASIER MENDIZABAL

*TOMA DE TIERRA*

(03.10.2014 – 20.11.2014)

## LUR-HARGUNEA

Formei zuzenenean interpelatuz, kolektibotasunaren irudikapenik ohikoenetako batzuei eusten dieten osagai materialei formalki galdezka, Asier Mendizabalek hainbat modu proposatzen dizkigu irudikapen horiek eratzen dituzten konbentziozko sinboloak irakurtzeko, testuinguruan kokatzeko eta berriz idazteko. Lur-hargunea izeneko erakusketak analogia formalen eta erreferentzia gurutzatuen sare bat atontzen du, eta, erakusketari dagokion hizkuntza sintaxi moduan erabiliz, hainbat aukera ematen ditu bertan dauden osagaiak eta aipatutakoak ondo-ondoan jartzeko. Kulturako konbentzio batzuk erabiliz, esate baterako, idulkia, paisaiaren irudikapen kodetua, edo zuretik abiatutako grabatua, xilografia, zenbait irudikapen politikotan, sare bat ehuntzen du ustekabeko harremanak iruten.

Adibidez, monumentu baten inguruan plaza batean pilatutako jendetzaren nonahiko irudiaren azterketa formala eginez, hainbat lotura sortzen dira, hasiera batean tipologia horri ustez dagokion eduki sinbolikoarekin zerikusirik ez dutenak. Jean Baudrillardaren aipu bat hartzen du proposamen honen goiburutzat, gaizto samarra eta lilura erdi galdua duena, masaren, jende-ostearen agentzia politikoa elektrizitateko masarekin parekatzen duena –lur-harguneak energia desbideratzen du, korronte aktiboa indargabetzen du lurrera adarkatuz–. Umberto Boccioniren marrazki txiki bat izan liteke ideia horren laburpen grafikoa, erakusketan ez egon arren, bere ernamuina izan baita. Hor, tintazko marren erretikula batek, erromatarren agurra egiten duten besoen masa bat eratuz, zaldizko estatua baten oinean, bat egiten du bere idulkiarekin. Marrazkiko keinuek ematen duten dinamismoa ikusita, badirudi jendetzaren indar zentripetuak aldi berean altxatzen edo eraisten duela estatua. Irudikapen hori bat dator Mendizabalek erakusketan aipatzen duen arazo errepresentazional baten konponketa teknikoarekin: XIX. mende erdialdeko prentsa ilustratua argazkigintza erabiltzen hasi zen, batez ere gertaera jendetsuak irudikatzeko, teknika hori errotatiban zuzen erreproduzitzeko modua izan aurretik. Tonuerdiko puntuen bidezko inprimatze fotografikoa asmatu arteko bitarte hartan, grabatzaileek argazkiak "itzultzen" zituzten, gubil batez zureko ohol gainean, masa eratzen zuten buru txikien erretikulen kopia eginez, filigrana ederren bidez, jakina, ez baitziren gai banakotasun bakoitzaren erretratua egiteko, argazkigintzak bezala. Grabatzeko teknika horren metafora inplizituak eta esplizituak beste kasu historiko batzuekin erkatzen dira; esate baterako, horra hor Txinako kultura-iraultzean egindako propaganda politikoaren erabilera, edo Espainiako Estampa Popular taldearen aldia, eta Ibarrola adierazgarri nagusi bezala, zur gainean ebakitzeko teknikak sortutako marra behartua kulturaren normalizatutako ikur sinboliko bilakatu baitzen.

Aldi berean, testu batek eta hainbat piezatan egindako aipamenei arazoak dituen monumentalizazio-kasu berezi baten berri ematen dute, Miguel Unamuno idazle bilbotarrari eskainitako busto txiki batek egungo formatua lortu arte izandako gorabeheren bidez. Irainek eta irain-ordeek, zutitze eta ikonoklasiako ekintzek ohikoa ez bezalako interpretazioa izan dezakete, adostutako kontakizunaren irudikapen publiko horien materialei eta hizkuntzei zuzen interpelatuz.












"Sin título (Wicker)", 2014. Hormigón, 61x40cm



"Sin título (Illustrated)", 2014. Material impreso enmarcado, 46x31





"Peana (La Foule)", 2014. Hormigón, guijarros y hierro, 90x122x82



"Sin título (Illustrated)", 2014. Material impreso enmarcado, 46x31







"Cabeza, puño, árbol", 2014. Papel Maché (2 elementos), 95x60x60 / 82x53x56





"Gurentza-Unamuno", 2014. Impresión fotográfica sobre papel Hannemühle, 120x85



"*Columna infame*", 2014. Hormigón, 160x37





"Sin título (Saski)", 2014. Hormigón.







"Ertz zorrotza (Masta)", 2014. Madera y textil, 200x20x14







"Placa (La Foule)", 2014. Hormigón, guijarros y hierro, 82x122



"Columna infame", 2014. Hormigón, 145x46